



LIBURUA

Hitz egin dezake estralurtar subalternoak?



HAJOR

OIHAN HITZEAN MUNDUA

EGILEA: URSULA K. LE GUIN
ITZULTZAILEA: AMAIA APALAUZA

IGELA, 2021

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Egin kasu Arrate Hídalgo sarreran diotsunari. Ez lotu *Oihan hitzean mundua* Vietnamekin. Ez akabatu eleberriaren fikzioa, eta ez egin kontakizuna Gerra Hotzeko inperialismoaren gatibu.

Hartu zientzia fikzioa, Amaia Apalauzak itzuli eta Igelak argitaratu duena, bere horretan. Utzi etorkizun espekulatioari gaurko botere harremanak azaltzen. Erabili Le Guinen lana zuk zeuk betiketzen dituzun menderakuntzak galdekatzeko.

Barkatuko didazu, momentu batez, itzulingurua: Gayatri Spivak pentsalariaren *Hitz egin dezake subalternoak?* hitzaldi ezagunaren gaia ez zen subalternoak hitz egin zezakeenetz. Arazoa zen inperioaren kokagunetik ezin zi-

tziola subalternoari entzun. Ondoren, hitzaldia *Arrazoi postkoloniarraren kritika* liburuan txertatzean, ikergaia berriemaile natiboa izatera igaro zen: etengabe hitz eginarazten zaion subjektu menderatua, inperioak entzun bai, baina inperioak nahi (edo ahal) zuena ulertzeko, eta ulertutakoarekin menderakuntza bermatzeko.

Bada, hor ditugu Le Guinen eleberriaren erdigunean Rai Liubov eta Selver: intentzio oneko antropologo inperiala eta berriemaile natibo subalternoa. Liubovek gelditu barik hitz eginaraziko du berriemaile eta Selverrek etengabe egingo dio berba antropologoari. Alta, Liuboven ulertzeko ezintasunak gurutzatzen du istorioa, eta batez ere, ezintasun horrek dakarren sarraskiak.

Are, Le Guinek Liubov bezain ezgai egiten gaitu. "Selver, sha'ab. Baina zer esan nahi zuen sha'ab horrek? [...] jainkoa [...] edo entitate numendarra, edo izaki boteretsua [...] bai horixe [...] itzultzailea". Ezin erabaki, irakurleak ere subalternoaren aurkako gorreria biolento horretan hartzen du parte. Hitz egin dezake Selverrek, estralurtar natibo berriemaile subalternoak? Dakigun bakarra da Liubov, flota inperiala eta gu geu ere ez garela dioena ulertzeko gai.

Liburua irakurri eta Vietnamez diharduela erabaki beharrean, pentsatu liburuak zuzenean interpelatzen zaituela. Zu ere gorra zarela zapalduen aurrean. Eta gorreria hori erabat dela biolentoa. ●